



[www.pixkanakakaskari.org/lanaur](http://www.pixkanakakaskari.org/lanaur)

Merkatuko erreferentziak



Eurostoxx50: %20,56  
Ibex35: %7,93  
Bono 10A: %0,57  
IPC: %5,10 (aza)

Metatutako emaitza

**%6,62**

Zorroaren banaketa

Err. finkoa %63,4  
Err. aldakorra %32,9  
Inb. altern. %3,7



Abe. 2021

### Urte amaierako rallya.


Errenta aldakorreko merkatuek nabarmen berreskuratu dute azaroan galdutakoa, Ibex-35ek izan ezik. Errenta finkoari dagokionez, egoera konplexua izan da, eta hala jarraituko du izaten, inbertitzailearentzat.

Azkenean, urtea ona izan da taldeko BGAE guztietan, eta azken 5 urteetan baino errentagarritasun handiagoarekin itxi dute.



## 2021: Lanaur HIRUko errentagarritasunaren jatorria

Gure zorroan ditugun aktibo motak osagarriak dira, eta errentagarritasun, arrisku eta hegakortasun ezaugarri desberdinak dituzte. Bakoitzaren errentagarritasunerako ekarpena aldatu egiten da urte batetik bestera, eta 2021ean Lanaurren errentagarritasunaren zatirik nabarienak errenta aldakorrean du jatorria.



PKn errenta aldakorraren eta inbertsio alternatiboaren pisua handitzen jarraitzearen aldekoak gara. Bazkideen batez besteko adinak (44 urte) posizio horiek handitzeko aukera ematen digu, epe laburrean hegakortasun handiagoa izateko arriskua badugu ere.